


# Euskal Eredua

*Un país mejor*

---

Konponbide berriak  
Lidergo berriak  
Gehiengo berriak

---



**ehbildu**





# ehbildu

© Euskal Herria Bildu, 2022

**L.G.:** D-676-2022





**Euskal  
Eredua** |

*Un país mejor*

# **Euskal Eredua**

HERRI HOBE BATEN ALDE

*Konponbide berriak, lidergo berriak, gehiengo berriak*

**ehbildu**

# *Konponbide berriak, lidergo berriak, gehiengo berriak*

Hilabete batzuk lehenago abiarazitako gogoeta baten emaitza da txosten hau. Pandemiak berak eta agertoki historiko guztiz berezia konfiguratzeko ari ziren faktore geopolitiko eta ekonomiko globalek gogoeta politiko sakona eragin zuten EH Bilduren baitan, zeinak gizarte zibileko pertsona ugariaren ekarpenak jaso dituen ondoren: Nola egin aurre gizateriaren historian hain berezia den une historiko honi? Zer oinarri ditugu herri gisa datozen belaunaldien ongizatea eta gure nazio komunitatearen garapen osoa bermatzeko?

Ukrainako inbasioak pandemiaren hilabete haietako analisiaren zati handi bat egiaztatu baizik ez du egin. Gertaerak azkartzen ari dira, eta gizateria osoarentzat arrisku handiak dakartzan egoera konplexua nagusitzen ari da, ziurgabetasun endemiko batera kondentatzen gaituena. Badira, gutxienez, bi arrazoi sendo gerta litekeen edozein eskalada militarren aurka azaltzeko, eta bakearen, demokraziaren eta herrien subiranotasunaren alde egin eta bide diplomatikoen eta bitartekaritzaren aldeko jarreraren berresteko:

Eskubideen berreskurapenaren bidean aurrera egin nahi dugunontzat oso kaltegarria den marko erregresiboa ezartzen ari da, eta gerra ekonomia delakoa gizartearen txirotze orokorrera garamatzen sakrifizioak, murrizketak eta soldaten devaluazioak iragartzen ari da. Argi dago, hain zuzen ere, eskuin muturra dela gerra-euforia horretatik onurak izaten ari dena, eta

**Nola egin aurre  
gizateriaren  
historian hain  
berezia den une  
historiko honi?**

—

**Zer oinarri ditugu  
herri gisa datozen  
belaunaldien  
ongizatea eta  
gure nazio  
komunitatearen  
garapen osoa  
bermatzeko?**

aukeren zerumuga dikotomia tragiko batera mugatzen ari dela: erregresio autoritarioa versus demokrazia liberalaren defentsa.

Bestalde, gerra hau, tragedia humano lazgarri bat izateaz gain, mehatxu zibilizatorioen azeleragailua da: Badira mehatxu estatikoak, hala nola arma nuklearrak ugaritzea, ezin aurreikus daitezkeen ondorioetako gerra nuklearraren arriskua areagotzen dutenak; eta badira denborak aurrera egin ahala azkartuz doazen mehatxuak, hala nola krisi ekologikotik eratorritako berotze globala.



01

# Bidegurutze bikoitza

Globalizazioaren aro baten amaieraren testuinguruan gaude. Inflazioa ez da soilik gerrak eragindako produktu energetikoen igoeraren ondorioa, izan ere, egiturazko faktoreei erantzuten die, hala nola erregai fosil merke ugarien amaieraren eta materialen agortzearen garai historikoari. Era berean, 2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ostean ezarritako politika monetarioaren ondorioa ere bada, orduko hartan interes tasa oso txikiak ezarri baitziren finantza-sistema erreskatzaren ondorioz sortutako zor publikoa finantzatzeko, era horretan ekonomia globalari arnasketa lagundu modukoarekin eutsiz. Neoliberalismoaren aldeko bultzada berria izan zen orduko hura, horrela sortu da finantza ekonomia neurritz kanpoko eta desjabetze bidezko metaketan oinarritutako sistema hau.

**Zer neurritan jarrai daiteke bizi dugun egoerari aurre egiten politika ekonomikoan erabateko ikuspegi aldaketa egin gabe?**

Zer neurritan jarrai daiteke bizi dugun egoerari aurre egiten politika ekonomikoan erabateko ikuspegi aldaketa egin gabe? Pandemia hasiz geroztik beroni aurre egiteko neurriak ezarri dira sektore zaugarrienen egoera arindu asmoz. Behin-behineko egoeratzat hartu da, denbora gutxian normaltasunera itzuliko bagina bezala. Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteak une honetan eskatzen du familiak eta enpresa txikiak eta ertainak babesteko ahalegin soziala bikoiztea. Horixe egin behar dena, noski, baina ez da aski, eta ezinezkoa da luzaroan eustea murrizketak onartu gabe eta gure gizarte-egituren premiazko eraldaketari uko egin gabe.

Onartu behar dugu ez gaudela salbuespen-garai baten aurrean, baizik eta globalizazio kapitalistaren azken etapa gidatu duten patrioiak aldatu diren nahasmendu ekonomiko handiko garai historiko batean; salbuespena arau bihurtu da.

Beraz, bidegurutze bikoitzean gaude: aberastasunaren banaketa versus gizartearen txirotzea; matrize

energetikoaren eta ekoizpen eta kontsumo moduen eraldaketa versus kolapso ekonomikoa eta ekologikoa. Eta horrek neurri aringarrietatik haragoko egiturazko jarduerak diseinatzea eskatzen du funtsezko lau esparru hauetan, gutxienez:

### **Energia-merkatuan esku hartzea**

Energia-merkatuan esku hartu behar da energiaren prezioa merkatuzeko eta konpainia elektrikoaren dibidenduak mugatzeko. Ez dugu onartzen gerra izatea gutxi batzuk bidegabe aberasteko aitzakia, gehiengoaren txirotzearen kontura.

Europar Batasunak enpresei laguntzak eman eta zorra eta prezioak neurri gabe igotzen diren momentu honetan, iritsi da dogma liberaletan oinarrituta eraikitako ereduak funtzionatzen ez duela eta oinarritzko hornidurak, hala nola energiarenak, merkatuaren gorabeheretatik kanpo egon behar duela aitortzeko unea. Energia-hornidurak ez du erreforma bat behar, ezpada osoko zuzenketa. Energiaren prezioak modu egonkorrarean araututa baleude, enpresek eta partikularrek ez lukete zertan merkatuaren gorabehera espekulatzailerek une oro eragiten duten tentsioa jasan. Estatuak esku hartu behar du energia-prezio egonkorra ahalbidetzeko, sektoreko enpresa batzuk publiko bihurtzeko aukera bazter utzi gabe. Izan ere, merkatuak ez du gastu energetikoa optimizatzen, baizik eta energia-enpresa handien mozkinak.

Gisa horretako irtenbide baterantz egiten ez bada, ondorioak oso kaltegarriak izan daitezke zehapenei dagokienez egiten diren urratsen arabera.

**Energia-merkatuan esku hartu behar da energiaren prezioa merkatuzeko eta konpainia elektrikoaren dibidenduak mugatzeko.**

## Errentak babestea

Errentak babestu egin behar dira. Instituzio desberdinen datu estatistikoaren arabera, soldatapekoen soldatak ordaintzeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehunekoa berriz ere jaitsi egin da, bi puntu hain zuzen ere. Dinamika hori urtetik urtera errepikatzen ari da azken hiru hamarkadetan, kapitalaren irabaziak eta BPGaren banaketan irabazi horiei esleitutako zatia handitzen ari diren bitartean. Une honetan, pertsona gehienak soldatapekoak diren arren, sortutako errenten %47 baizik ez da horien esku geratzen. Datu garrantzitsu horri inflazioaren gorakada handia gehitu behar zaio, jada pertsona eta familia-unitate gehienen erosteko ahalmenaren galera handia eragiten ari baita.

Langileen erosteko ahalmenaren debaluaziora daramaten errenta-itun orokorren aurrean, behar-beharrezkoak dira akordioak marko autonomiko bakoitzean, oinarri komunarekin eta helburu bikoitzarekin: Alde batetik, gure errealitate sozial eta ekonomikoarekin bat datorren Lanbide arteko Gutxieneko Soldata propioa bermatuko duen akordioa behar dugu. Helburua da, negoziazio kolektiboaren esparruan gerta daitezkeen akordioetatik harago, deskribatutako dualizazio prozesua geldiarazten edo, gutxienez, moteltzen lagunduko duen gutxieneko erreferentzia bat izatea.

Bestalde, behar-beharrezkoa da negoziazio kolektiboa eta lurraldeetako akordio propioak bultzatuko dituen akordio orokor bat sustatzea, KPIaren igoera handiaren aurrean erosteko ahalmenaren galerak eta soldaten debaluazioak atzera egin dezala bermatzeko.

Horretarako, behar-beharrezkoa da konpromiso politiko publikoa eta gobernuen jardura proaktiboa, eragile ekonomiko eta sindikalen arteko akordioak inter-

**Langileen erosteko ahalmenaren debaluaziora daramaten errenta-itun orokorren aurrean, behar-beharrezkoak dira akordioak marko autonomiko bakoitzean, oinarri komunarekin eta helburu bikoitzarekin.**

pelatzeko eta sustatzeko, milaka langileren txirotzea saiheste aldera.

## **Aberastasunaren birbanaketa**

Aberastasuna birbanatzeko politika berri bat egin behar da. 2021eko apirilean, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), hauxe adierazi zuen bere zerga-monitorean covid-19aren pandemiaren ondorioen harira: “Desparekotasun handi iraunkorrek okerragotu egin dute covid-19aren pandemiaren eragina, eta krisiak, bere aldetik, handitu egin ditu desparekotasun horiek”.

Jakina da krisi ekonomikoei emandako irtenbideak desparekotasunak areagotzea ekarri duela; hala bada, krisialdi baten ostean, aberatsak aberatsagoak izaten dira, eta txiroak txiroagoak. Horregatik, krisi berri honi aurre egitean, helburuetako batek izan behar du aberastasunaren birbanaketa sustatzea. Eta horrek agerian uzten du zerga-ereduari buruzko eztabaida sozial eta politiko sakon bat egiteko premia. Indar politiko desberdinen abiapuntuko posizio ideologikoetatik harago, kontuan izan behar dugu gaur egungo fiskalitateak ez duela aberastasunaren izaera banatzailea bultzatzeko aukerarik ematen, sistema fiskal justu baten berezko helburua hori bada ere.

Eta horri, ia inolako zalantzarik gabe, gehituko zaio diru bilketan izango den jaitsiera. Begien bistakoa da diru sarrerak diru bilketa progresibo baten bidez handitzeko beharra; izan ere, ongizate-egiturak eraldatzeko eta gizarte arloan erresilientzia irabazteko, gastu publikoaren eta inbertsioaren beharrak oso handiak izango diren testuinguru historiko baterantz goaz. Gehiago duenak, krisialdi baten ostean aberastasuna metatzen duenak, gehiago jarri behar du sortutako aberastasunak gizarte osoaren ongizatean eragin dezan.

Beraz, premiazkoa da fiskalitate progresibo eta bidezkoago bati buruzko eztabaida planteatzea, sozialki aurreratuenak diren Europako herrialdeetako antzeko presio fiskala ekarriko duena. Izan ere, fiskalitate berri bati buruzko eztabaida zabalik dago mundu mailan eta baita gure inguru hurbilenean ere. Fiskalitate berri horrek, ezinbestekoa baita aberastasuna birbanatzeko, alderdi berritzaileak eduki behar ditu, hala nola, trantsizio ekologikoa eta garapen ekonomiko jasangarria ahalbidetuko dituzten neurriak, edo diru-sarrearen arloan genero-joera aztertu eta horri aurre egiten lagunduko duten neurriak.

## **Herri-proiektua**

Laugarrenik, etorkizuna prestatu behar dugu, eta beraz, sendo oinarritutako herri-proiektua sortu behar dugu testuinguru historiko honi gutxieneko bermeekin aurre egiteko. Honexek beharko luke, gure aburuz, herri-proiektu horren abiaburua: gizateriak dituen erronken dimentsioak guztiz gaingiditzen gaituela ukatu gabe, irmotasunez esan dezakegu, eta esan behar dugu, aurrean ditugun erronka guzti-guztiek gure lurraldearen dimentsio eta ezaugarrien araberako konponbideak eskatzen dituztela.

Horixe da, preseski, jarraian aurkezten dugun Euskal Eredua proposamenaren xedea.

**Beraz, premiazkoa da fiskalitate progresibo eta bidezkoago bati buruzko eztabaida planteatzea, sozialki aurreratuenak diren Europako herrialdeetako antzeko presio fiskala ekarriko duena.**

—

**Etorkizuna prestatu behar dugu, eta beraz, sendo oinarritutako herri-proiektua sortu behar dugu testuinguru historiko honi gutxieneko bermeekin aurre egiteko.**

02

# Aro- aldaketa

Gure iraganaren mitifikazioan erori gabe, esan daiteke badagoela nolabaiteko adostasuna ideia honen inguruan: Euskal Herriaren historian badago sen komunitario baten arrasto sakona. Tradizio horrek, askotariko faktoreak direla tarteko, munduaren berdintasunezko ikuspegiari eutsi dio, jabetza kolektiboa garatu du eta praxi demokratikoan saiatu da. Horren erakusgarri da, urrutirago joan gabe, XX. mendearen bigarren erdialdean garatutako eraikuntza nazionalaren ziklo eman korra.

Etorkizunari begiratu baino lehen komenigarria da atzera begiratzea, ziurrenik XX. mendearen bigarren erditik aurrera abiarazitako eraldaketa-prozesu horretan aurkituko baititugu etorkizunari aurre egiteko elementu interesgarri zenbait.

Izan ere, eraldaketa-prozesu horri esker, gai izan ginen gure herriaren garapen sozioekonomikoan eta kulturean eragin handia izan duten erantzun berritzaileak emateko. Orduan gertatutakoak gutxienez hiru ezaugarri funtsezko izan zituen bere oinarrian: amets egiteko nahi kolektiboa, ikuspegi komunitario sendoa garapenaren ulerkeran eta berdintasun-zentzu argia. Garai hartan izan zuten abiapuntu, besteak beste, euskalduntze-prozesuak, ikastolek eta kooperatibek, eta geroago, euskal lurraldeen erakundetze prozesu modernoak, gizarte eta nazio eraikuntzari funtsezko bultzada eman go ziotenak.

Lan kolektibo eskergari esker, askotariko lidergoen bitartez eta tradizio politiko desberdinen ekarpenak jasoz, Euskal Herria bizirik iritsi da XXI. mendera, XXI. mende nahasi eta arriskutsu honetara. Aldaketen aroan gaudela esaten da, baina hain dira handiak aldaketak eta hain azkar ari dira gertatzen, hanka sartzeko beldurrik gabe esan dezakegula aro-aldaketa baten aurrean gaudela.

**Aldaketen aroan gaudela esaten da, baina hain dira handiak aldaketak eta hain azkar ari dira gertatzen, hanka sartzeko beldurrik gabe esan dezakegula aro-aldaketa baten aurrean gaudela.**



## **Krisi klimatikoa eta energetikoa**

Bukatu da erregai fosil merkeen oparotasun garaia, eta gero eta latzagoa izango da potentzia ekonomikoen arteko lehia baliabide energetikoen eta materialen kontrola nork izango. Trantsizio ekologikoa da alternatiba, baina horrek gauza asko esan nahi ditu, besteak beste, zalantzan jarri behar dela garapen-eredua bera, fisikoki ezinezkoa baita erregai fosilak energia berriztagarriekin ordezkatzea ekoizpen eta kontsumo sistema kapitalista honekin jarraituz.

Eta Nazio Batuetako Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldearen (IPCC) seigarren txostena esku artean dugula, zalantzarik gabe esan dezakegu amaitzen ari dela garapen-eredua sakonki eraldatzeko eta klima-aldaketaren ondorio suntsitzaileak arintzeko denbora. Hirugarren lantaldearen txosten berriki argitaratuaren arabera, berotegi efektuko gas isuriek beranduenez 2025ean iritsi behar dute beren maila gorenera, nabarmen murrizteari ekiteaz batera.

Covid-19arekin bizi izan duguna txiki geratzen da klima-aldaketa larri batek ekarriko lituzkeen ondorio ekonomiko eta sozialekin alderatuz gero. Bizi izan dugun osasun krisiak begiak irekitzeko balio beharko liguke, erreakzio berantiar batek izango lituzkeen ondorio larriez ohartu gaitezten. Eta ebidentzia zientifiko guztien arabera oso berandu ari gara: IPCC beraren arabera, mundua ezin bide okerragoan ari da, batez besteko tenperatura 2,7°C igoko baita mende amaierarako martxan honetan.

**Bukatu da erregai fosil merkeen oparotasun garaia, eta gero eta latzagoa izango da potentzia ekonomikoen arteko lehia baliabide energetikoen eta materialen kontrola nork izango.**

—

**Ebidentzia zientifiko guztien arabera oso berandu ari gara: IPCC beraren arabera, mundua ezin bide okerragoan ari da, batez besteko tenperatura 2,7°C igoko baita mende amaierarako martxan honetan.**

## **Iraultza teknologikoa**

Disrupzio teknologiko baten atarian gaude: 5G sarearen hedapenak, Internet of Things-ek, bioteknologiak, Big Data, Adimen Artifizialak eta Blockchain bezalako teknologien garapenak oso aldaketa sakonak eragingo dituzte bizitzaren arlo askotan, imajinatzeko gai ere ez garenak; eta aldaketok uste baino azkarrago gertatuko dira gainera.

Iraultza teknologiko horrek askotariko ondorioak eta sakonak izango ditu lan-munduan, etxean, ikastetxean eta oro har gizarte-harremanetan. Antropologia berri bat sor dezaketen aldaketen aurrean gaude, erronka etiko, sozial eta kultural handiak agerian uzten dituztenak. Izan ere, eraldaketa digitala ez da garapen teknologiko hutsa, ezpada egiturazko antolakuntza eta kultura bilakaera.

Teknologiak aukera berriak eskaintzen ditu prozesu demokratizatzaileentzat, hala nola gobernu irekia delakoarentzat, gisa honetan ulertua: administrazioak abian jarritako jarduera multzoa, herritarren lankidetzat sustatzeko eta zerbitzu publikoak hobeto eskaintzeko, gai publikoen kudeaketan gardentasunaren eta kontu ematearen aldeko apustua egiten duen kudeaketaren bitartez.

## **Krisi soziodemografikoa**

Munduko populazioaren hazkundera moteltzen ari bada ere, biztanleria globalak hazten jarraituko du 2030. urtera arte. Aurreikuspenen arabera, 2030. urterako 1.000 milioi biztanle gehiago izango gara munduan. Oso desorekatua izango da bilakaera demografikoa, eta mendebaldeko gizarteetan, gurean kasu, nabarmen egingo du behera jaiotza-tasak.

**Antropologia berri bat sor dezaketen aldaketen aurrean gaude, erronka etiko, sozial eta kultural handiak agerian uzten dituztenak.**

Datozen urteetan ez du etenik izango pobreziatik eta klima aldaketaren ondorioetatik ihes egingo duen jende oldeak. Ondorioz, kulturalki inoiz ez bezain aniztunak izango dira mendebaldeko jendarteak, eta horrek erronka egiazki konplexuaren aurrean jartzen gaitu: nola ziurtatu migrazio segurua eta nola kudeatu demokratikoki aniztasun kulturala gizarte-kohesioa indartzeko bidean.

Gehiago izango gara, hiri-aldeetan kontzentratuago biziko gara, eta gainera, luzaroago biziko gara. 2030. urterako 65 urte baino gehiago izango ditu Europako biztanleriaren %25,5ek, eta horrek ezbaian jartzen ditu gure ongizate-sistema guztiak. Arreta berezia merezi du biztanleriaren zahartzeak, besteak beste, zaintza-lanen emendioa baitakar berekin batera. Hain zuzen ere, gaur egungo gizarte arloko desparekotasunen adierazpen gordinenetako bat da zainketen krisialditi- eratorritakoa: instituzio publikoek erantzun egokirik ematen ez duenez, gero eta handiagoa da emakumeek jasaten duten pisua, eta gero eta prekarioagoak dira egiten dituzten zaintza-lanak.

## **Ordena globalik gabe**

Kaosean murgilduta dagoen mundu honetan, desagertu egin da bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen ordena planetarioa. Ez dago erronka handiei modu eraginkorren eta demokratikoan aurre egiteko estrategiak eta jarduerak hitzartzeko gaitasuna duen gobernantza sistema globalik. Aitzitik, nazionalismo erreakzionarioak indartzen ari dira eta eredu autoritarioak nagusitzen.

Testuinguru horretan, Ukrainako gerrak kolokan jarri du Europaren autonomia estrategikoa, eta mugatu egin ditu eredu ekonomiko bidezko eta jasangarrirantz-

**2030. urterako 65 urte baino gehiago izango ditu Europako biztanleriaren %25,5ek, eta horrek ezbaian jartzen ditu gure ongizate-sistema guztiak.**

–

**Ez dago erronka handiei modu eraginkorren eta demokratikoan aurre egiteko estrategiak eta jarduerak hitzartzeko gaitasuna duen gobernantza sistema globalik.**

ko eraldaketa azkartzeko aukerak. Gerraren izugarrikeriek isilarazi egin dituzte karbono gutxiko ekonomiaranzko trantsizio sozialki bidezkoa agintzen zuten kontakizunak. Gerra eta haren ondorioak erabateko lehentasun bihurtu dira, alde batera utzita ekoizpen-eredua eraldatzeko egin behar den ahalegin ekonomiko komunitario kolosala.

Eraldaketa atzeratzea heriotza-epaia da, inolaz ere. Energia-matrizearen aldaketa guztiz da premiazkoa, arrazoi ekologikoengatik, familien eta enpresen ekonomiagatik, eta Europarako autonomia eta segurtasun arrazoiengatik.

03

# Zein da Euskal Herriaren egoera?

### 03. Zein da Euskal Herriaren egoera?

Eta zein da Euskal Herriaren egoera aldaketa handien garai historiko honetan? Aldagai sozial, ekonomiko eta kultural nagusien egiturazko azterketak ondoko ondoriora garamatza: geldirik gaudela, ez atzera ez aurrera. Halaber, berdintasun-, ongizate- eta garapen-adierazle nagusien arabera, gure metabolismo komunitarioa ahultzen ari da, eta horrek bidegurutze historiko batean kokatzen gaitu. Gure herriak ez du aurrera egiten momentuak eskatzen duen bezala, garaiko erronkek eskatzen duten neurrian. Gero eta nabariagoa da hori.

#### **Ura galtzen du botilak**

Eztabaida politikoa ezin da izan botila erdi-betea edo erdi-hutsik ikusten ote dugun. Botila ura galtzen ari dela ohartu behar dugu. Txosten honen xedea ez da nazioaren egoeraren azalpen zehatza egitea, eta beraz, formulatutako tesia ustez egiaztatzen duten funtsezko lau alderdi aztertuko ditugu: garapen soziala, lan-merkatuaren bilakaera, industriaren egoera eta garapen kulturala.

Eusko Jaurlaritzaren Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunen Inkestari buruzko txostenaren arabera, EAEn, 284.000tik gora lagunek oinarrizko gastuak murriztu behar dituzte, 103.000tik gora lagunek ez dute oinarrizko gastuei aurre egiteko ahalmenik, eta 28.000tik gora etxetan gose izan dira. Pobrezia erlatiboa %20 hazi da 2008-2018 epean, eta pobrezia absolutua %65. Foessa fundazioaren bazterketa eta garapen sozialari buruzko azken txostenaren arabera, covid-19aren krisiak bazterketa-egoeren hazkunde aski garrantzitsua eragin du EAEn, batik bat bazterketa-egoera muturrekoenetan. Bazterketa zabaldu eta sakonago bihurtzen ari da: 2018an bazterketa-egoeran bizi ziren pertsonen %31 muturreko bazterketa-egoer

**Gure herriak ez du aurrera egiten momentuak eskatzen duen bezala, garaiko erronkek eskatzen duten neurrian. Gero eta nabariagoa da hori.**

**Eztabaida politikoa ezin da izan botila erdi-betea edo erdi-hutsik ikusten ote dugun. Botila ura galtzen ari dela ohartu behar dugu.**

ran bizi baziren ere, 2021ean %55ekoa da portzentaje hori.

Nafarroako Foru Komunitatearen (NFK) azken urteetako egoeran argi-ilunak ageri dira. Hala, 2008an ainguraturatutako pobrezia-arriskuaren tasak 2015ean lortu zuen baliorik handiena (%32,0). Urte horretatik aurrera, tasa horrek behera egin du pixkanaka, eta 2019an atalase ainguratutako pobrezia-tasa %17,6koa zen.

NFKn, pobrezia-arrisku erlatiboaren tasa %23,2koa izan zen 2015ean, eta portzentaje hori %21,2ra jaitsi da 2019an. Pobrezia larriaren tasak, oinarri gisa ere 2008an jarritako atalasea erabiliz, 2015ean lortu zuen daturik altuena (%16,4), eta urte horretatik aurrera behera egin zuen, 2019an %9,7 izatera iritsi arte. Azken urteotan hobekuntza erlatiboak eta partzialak izan diren arren, azken hamarkadetako joera globala pobrezia egoeren emendatzea da.

Herritar gehienek errenta-iturri nagusia soldatapeko lana eta administrazio publikoen aurrekontu-sarrerak direnez gero, lan-prekarietatea da bizi-prekarietatearen kausa nagusia. Azken hamarkadetan nabarmen okertu da kontratu eta soldata egituraren homogeneotasuna, langileen lan-baldintzen arteko aldeak handitu direlako, soldata-aldeak handitu direlako (soldata handienek eta txikiak arteko aldeak), aldi baterako kontratuak zabaldu direlako edo lanaldi osoko kontratu egonkorrik egin ez delako. Eta horri guztiari beste bi hauek gehitu behar zaizkio: alde batetik, soldatapekoen ordainsarien pisua 10 puntu baino gehiago jaitsi da azken hamarkadetan kapital finantzarioari eta fisikoari lotutako errenten mesedetan; eta bestetik, herritarrek diru-kutxa publikoari egiten dioten ekarpena erregresiboagoa egin da (diru-sarrera handiagoak dituzten pertsonen ekarpena), soldatapekoak baitira aurrekontu publikoaren zergadun nagusiak.

Denboraren poderioz lan-merkatu dual eta segmentatua eratu da, eta merkatu horretan soldatapeko biztanleen %20-30ek aldi baterako kontratuak dituzte, eta horrek bizi-ibilbide ezegonkorrak eragiten dizkiete gehienetan. Datu horrek Ekonomia Lankidetzan eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) behin-behinekotasunaren rankingeko posizio altuenetan kokatzen gaitu. Zehazki, 2018an, EAEn 230.000 lagun ziren aldi baterako kontratuarekin, 25-44 urtekoen artean erdia baino gehiago. Beraz, uste ohi denaren kontrara, ez da gazteei eragiten dien fenomeno iragankor bat, baizik eta arazo kronikoa biztanle askorentzat, horrek dakartzan arazo sozial guztiekin.

Gainera, 2018an egindako miloi bat kontratutik ia 400.000 partzialak izan ziren, bi heren emakumeentzat, eta lan gehien-gehienak beste inork nahi ez zituenak. Iraupenari dagokionez, 335.000 kontratu astebetetik beherakoak ziren, eta beste 320.000 aste batetik hilabetera bitartekoak. Ikaragarria izan da kontratu txiki mota horren hazkundera, %78 hazi da 2009tik aurrera. Azken lan erreformak izan dezakeen inpaktu erreala ikusteke, lan merkatuan ezartzen ari den izaera berria (ez soilik bere segmentazio duala baizik eta baita azpienplegaren pisu gero eta handiagoa) diru-sarrerara nahikoak ez dituzten familien kopurua eta gizarte-desparekotasuna handitzen eta betikotzen ari da. Gainera, Europako batez bestekoaren azpitik dagoen presio fiskal gero eta txikiagoak, zer esanik ez herrialde aurreratuenekin alderatuta, gizarte-babeseke eta transferentzietako mekanismoak eraginkorrak ez izatea eragiten du. Eta horrek guztiak berekin batera dakartza ziurgabetasuna, mendekotasuna, ezkutuko txirotasuna, bizi-proiektuak modu autonomoan eraikitzeke ezintasuna, jaiotza-tasaren murrizketa eta gizarte-kohesioa okertzea.

Langabezia-tasa ez da nabarmen aldatu NFKn 2021ean. Azken urtean, tasa horren batez bestekoa 2020an izan-



dakoaren oso antzekoa izan da, %10,6 eta %10,1, hurrenez hurren. NFKko behin-behinekotasun tasa zertxobait jaitsi da azken hiru urteetan, %23,8ra iritsi arte. Ildo beretik, aldi baterako kontratazioen ehunekoak beheranzko joerari eutsi dio, eta azken zortzi urteetan ehuneko bi puntu murriztu da. Hala ere, emakumeen behin-behinekotasun-tasak gora egin du, eta %28,5 izatera iritsi da.

Beste behin ere, NFKn, aldaketek edo hobekuntza erlatiboek eragin oso desberdina dute kolektibo sozialen arabera: ahulenen zaugarritasuna eta gizarte-dualizazioa sakontzen ari da.

Lan-merkatuaren errealitate horrek eta alogerazko etxebizitzaren prezioek modu jasanezinean atzeratzen dute emantzipazio-adin efektiboa, eta horrek ondorio demografiko kezagarriak eragiten ditu, hala nola, jaiotza-tasa txikia eta alokairua garestia den hiriguneen zahartze azkarra. Izan ere, Europako altueneetakoa da EAEko gazteen batez besteko emantzipazio adina: 29,6 urte.

Industria-jarduerari dagokionez, gure ekonomiaren oinarria baita, 2017. urte amaieran Industriako Barne Produktu Gordina (BPG), termino konstanteetan, ehuneko 2,39 txikiagoa zen 2008ko urtekoaren aldean (-2,97 puntu EAEn eta -0,45 puntu NFKn. Beraz, industriak euskal ekonomian duen pisua BPGaren %24 da, 1990eko hamarkadaren bigarren erdian %30etik gorakoa zenean, eta 2008ko krisialdia baino lehen %28 ingurukoa. NFKn egonkorrago eutsi zaio industriaren pisuari, %27-30 bitarteko pisua du.

Europako 238 eskualdetako jarduera berritzailea konparatzen duen Eskualdeko Berrikuntza Indizearen arabera, Europar Batasuneko batez bestekotik nabarmen urruntzen da EAE. Eta beste maila bat beherago

kokatzen da NFK. Euskal lurraldeak atzeratuen taldean daude berrikuntzari dagokionez. Euskal eskualdeak asko jaisten dira enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza ez teknologikoa ebaluatzen denean. Enpresa txiki eta ertainetan produktu eta prozesu berritzaileen sarrera ere nabarmen hobetu daiteke. Industria berrikuntzari dagokionez, galtzen ari gara Europako eskualde aurreratuenen trena.

Demografiari eta lan indarrari dagokienez, egungo aurreikuspenek erakusten dute urteko lan-indarra 15.000 lagun inguruan jaitsiko dela. Horrek giza gaitasunaren galera izugarria dakar, eta 10 urtean %15 murriztu dezake aberastasuna sortzeko dugun ahalmena. Produktibitatea izan daiteke defizit hori orekatzeko duen faktore bat, baina, aldi berean, kanpora doan talentu-ihesak eta ezagutzan egindako inbertsioa pixkanaka murrizteak ez dute aurreikusten aukera hori espero daitekeenik aldaketa zorrotzik egin ezean.

Industriari dagokionez, “eskualde arrunt” bilakatze bidean gara, aspirazio marjina propiorik gabeko eskualdea. Baliabide humano, intelektual eta ekonomiko handiak modu itunduan mugiarazi behar dituen erronkaren aurrean gaude.

Gaur egun, euskalduntze prozesua geldialdian da. Eremu batzuetan, euskararen erabilera behera egiten hasi da lehen aldiz azken hamarkadetan. Era berean, halako moteltze bat hauteman daiteke euskararen ezagutzan ere. Zalantzarik gabe positiboak diren datuekin batera, badira nahi genituzkeenak baino datu kezkarri eta itzal gehiago; gehiago espero zitekeen herri honetan egin den eta egiten den ahalegin kolektibo itzela ikusita. Eskura dauzkagun datuen arabera, ezin dugu esan euskararen etorkizuna bermatuta dagoenik, ezta euskarak posizio hobea duen lurraldeetan ere.

Bestalde, euskal erakundeek, oro har, urte hauetan ez dute Euskal Komunikazio Esparrua indartzeko politikarik garatu, eta gaur egun, ikus-entzunezkoen nagusitasuna erabatekoa den aro digitalean guztiz murgildu garelarik, komunikazioaren esparrua bideratuko duen estrategia argi baten faltan jarraitzen dugu. Komunikazio esparru propiorik gabe ez dago naziorik.

Oro har, kultura global hegemonikoaren testuinguruan, euskal nazioaren erreprodukzio kulturalaren mekanismoen narriadura nabari da. Noski, ingurune faktoreen bilakaerak ahuldu egin du euskal kulturak kultura hegemonikoen aurrean duen posizio erlatiboa, baina egia da, era berean, ez dugula gure kultura-egiturak indartzen jakin; izan ere, kulturaren globalizazioaren testuinguru honetan, prekarietate-egoera oso kezagarrian daude euskal kultura-egitura gehientsuenak.

## **Ez dugu etorkizuna prestatzen jakin**

Erregai fosil merkeen agortzea egiaztatzen den testuinguru historiko honetan Euskal Herriak bi zaugarritasun-faktore handi ageri ditu:

EAEn %93tik gorakoa da mendekotasun energetikoa, eta NFKn %75etik gorakoa. Energia berriztagarrien garapenak EAEn ez du guztizko kontsumo energetikoaren %10 gainditzen, ezta NFKn %14 ere. EAEn ez da energia berriztagarrien instalazio bakar bat ere eraiki 2006. urteaz geroztik, gas ez-konbentzionala aurkitzeko apustua egin da estatuko Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak hidrokarburoak aurkitzeko saio berri guztiak debekatu dituen arte. Lehentasunak beste leku batzuetan egon direnez gero, une honetan ez dago energia berriztagarriak modu antolatuan hedatzeko plangintzarik. Bistan denez, denbora asko galdu da:

Energia berriztagarrien gaur egungo garapen falta lasta handia zaigu energia fosilen ugaritasunaren amaieraren testuinguru historikoan.

2019ko balantze energetikoak barne hartzen dituen datuen arabera, NFK, %80,59an, inportatu egin behar dituen baliabide energetikoen mende dago (gas naturala %43,68; petrolioa eta eratorriak %32,96; ikatza eta kokeak %3,95). Bestalde, NFK elektrizitatearen inportatzaile izatetik esportatzaile izatera igaro da 2002. urtetik aurrera. Instalaturako ahalmen berriztagarria ia energia ez-berriztagarrien ahalmenaren parekoa izan zen 2016an (1.374 MW berriztagarri), eta energia eolikoa da iturri nagusia (975,6 MW), berriztagarriak ez diren 1.379,7 MWe aldean. Azken urte hauetan, NFKk elektrizitate berriztagarri gehiago ekoitzi du (%62,05) ez berriztagarri baino (%37,95), ziklo konbinatuko zentralen funtzionamenduak gora egin duen arren.

Azken hamarkadetan bideratutako politika publikoen ondorioz, biztanleen %12 baizik ez da landa eremuan bizi EAEn (Europar, batez beste, %23). Azken hamarkadetan baserrien herena hustu egin da, eta gaur egun ustiategien titularren %8,5 baizik ez dira 35 urte baino gutxiago dutenak. Bitartean, EAEn kontsumitzen ditugun elikagaiek batez beste 3.000 kilometro egiten dituzte gure plateretara iristeko: gure elikadura-subiranotasuna ez da %5era iristen.

NFKn, biztanleriaren %8,5 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da. 2007tik 2020ra, 21.000 nekazal hektarea desagertu dira, eraikuntzagatik edo lurzorua- ren aldaketagatik. Horrela, 2020an 335.887 hektarea zeuden laborantzarako, azalera osoaren %32,3.

Argi dago ez dugula etorkizuna prestatzen jakin.

**Erregai fosil merkeen agortzea egiaztatzen den testuinguru historiko honetan Euskal Herriak bizaurgarritasun-faktore handi ageri ditu.**

## **Alde batera utzi dugu euskal eredia**

Baina etorkizuna prestatzen ez jakiteaz gain, alde batera utzi dugu euskal eredia: utzi egin diogu mundua gure ikuspegitik interpretatzeari, gure sen komunitarioa alboratu dugu. Neurri handi batean, erronka sozial eta ekonomikoei gure idiosinkrasian eta gure gaitasun komunitarioetan oinarrituta aurre egiteko moduari uko egin diogu.

Azken hamarkadetan, globalizazio neoliberalaren korranteak eraman gaitzan utzi dugu, modu akritikoan. Politika ekonomikoaren funtsezko esparruetan, giza garapen jasangarriaren edozein logikaren aurka doazen ereduak sustatu dira: gasaren sektorearen aldeko apustua energia berriztagarrien garapenaren kaltetan, errentagarritasun sozial frogaturik gabeko azpiegitura handien sustapena, gure industria sarearen zati handi bat atzerriko kapitalaren esku utzi duen industria politika aktibo baten falta, aurrezki-kutxak banku bihurtzea zentzu kritiko txikienik gabe, zerbitzu publikoak ahultzea (hala nola osasuna), gizarte-zerbitzuak zainketen krisiaren garaira egokitzeko plangintzarik eza, erraustegi bat martxan jartzea klima larrialdi betean hiri hondakinen kudeaketa 30 urterako hipotekatuz, eta abar.

Surfean egin dugu globalizazio neoliberalaren olatu gainean, eta olatua itsasertzera iritsi denean konplexutasun handiko garai honi erantzun sortzaile bat emateko beharrezkoak diren gizarte egiturarik gaude. Alde batera utzi dugu beste une historiko batzuetan hain eraginkorra izan zaigun eta hain arrakastatsua izan den euskal eredia.

Euskaltel kasua ekarri nahi dugu gogora, ikuspegi sozial zein herrigintzazko batetik okerra den politika ekonomikoaren adibide paradigmatico gisa. Kontua

da banda zabaleko azpiegitura publikoari (guztion artean ordaindua) uko egin diogula, enpresa bati “oparitu” diogu, eta hark, aldi berean, inbertsio-funts batzuei saldu die. Azpiegitura publiko estrategiko horren gainean dagoeneko ez dugu inolako kontrol publiko eta sozialik. Operazio ekonomiko negargarria iraultza digitalaren atarian, azken urteotan euskal erakundeetan nagusi izan den ikuspegi estrategikorik ezaren erakusgarri garbia.

Bada garaia alde batera uzteko konparaziozko azterketa autokonplazienteak eta diskurtso paralizatzaileak, inerteak, herri gisa ditugun gaitasunak eta aukerak neutralizatzen dituztenak. Erronka sozialei eta ekonomikoei gure idiosinkrasian eta gure gaitasun komunitarioetan oinarrituz aurre egiteko modua berreskuratzekeo garaia da.

**Utzi egin diogu mundua gure ikuspegitik interpretatzeari, gure sen komunitarioa alboratu dugu. Neurri handi batean, erronka sozial eta ekonomikoei gure idiosinkrasian eta gure gaitasun komunitarioetan oinarrituta aurre egiteko moduari uko egin diogu.**

04

# Norabide berri bat

Azken 200 urteetako desparekotasun sozial handienak eragin ditu merkatu librean eta hazkunde esponenzialaren dogma ukaezinean oinarritutako paradigma ekonomikoak, eta planetaren muga biofisikoen aurka jo du. Aurrekaririk ez duen gizadiaren historiako une batean gaude orain: klima-aldaketak planetako leku askotan bizi baldintza materialak suntsitzeko mehatxua egiten du, eta energia baliabide intentsibo merkeen ugaritasunaren amaierak eragindako krisi energetikoak eta lehengaien agortzeak hondamendia ekar dezakeen gerra-egoerak hauspotzen ditu.

### **Garapen-paradigma berria**

Kate Raworth ekonomialari britainiarraren arabera, pentsamolde erabat berria behar da XXI. mendeko erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko, norabide-aldaketa bat. Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Euskadi Next planaren azken bertsiok egoki jasotzen du Kate Raworthen teoria. Hitzazurrean honako hau irakur daiteke: "Kate Raworthek BPGaren obsesioa alde batera uzteko beharra nabarmentzen du, horixe baita hazkundearen eta aurrerapenaren arteko nahasketaren erantzule nagusia, eta adierazten du helburu anbiotsuago baten alde lan egin behar dela, bere erros-killia ospetsuan irudikatzen den bezala. Laburbilduta, helburu hori da ongizatea izatea, zeina ez bailitzaioke inori falta beharko, eta gaingitu behar ez genukeen presio planetarioko muga ekologikoa izatea. Hain zuzen ere bi muga horien artean dago aurrerapen-eremua, segurtasun-eremua".

Argi dago neutraltasun klimatikorako trantsizioak ez duela esan nahi baliabide fosilak energia iturri berriztagarriekin ordezkatzeko hutsa. Sinpleki, fisikoki ezinezkoa delako. Beraz, behartuta gaude energia eraginkortasuneko politiketan ahalegin itzela egitera, eta,

**Pentsamolde erabat berria behar da XXI. mendeko erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiteko, norabide-aldaketa bat.**

–

**Beraz, behartuta gaude energia eraginkortasuneko politiketan ahalegin itzela egitera, eta, aldi berean, ekoizpen eta kontsumo erak eraldatzera gizarte-aurrerabide modu berrietarantz.**



aldi berean, ekoizpen eta kontsumo erak eraldatzera gizarte-aurrerabide modu berrietarantz. Neutraltasun klimatikorako trantsizioak ekonomiaren dimentsio materiala murriztea dakar, planetaren muga biofisikoen barruan kokatu arte. Zentzu horretan, iritsi da BPG aurrerapena neurtzeko adierazle nagusi gisa alde batera uzteko unea.

Izan ere, BPGaren gorabeherak neurtzen dituen hazkunde ekonomikoaren adierazlea jendartearen ongizatearen isla ahula da: guztiz saihesten du eduki kualitatiboaren alderdia; ekarpen positibo gisa kontabilizatzen du herrialde bateko ekonomian balio erantsia duen oro, funtsean giza produkzio edo kontsumo-jarduerek eragindako kalteak (kutsadura, baliabide naturalak agortzea, ezbeharrak) konpontzeko balio duten gastuak barne hartuta; merkatuak ez ditu balioesten eta, beraz, ez daude BPGan aintzat hartuta ongizatea lortzen laguntzen duten jarduera eta baliabide ugari (esate baterako, ordaindu gabeko jarduera guztiak); ez ditu aintzat hartzen modu horretan sortutako aberastasunaren banaketa, ingurumen kostua, lanaren malgutasuna ekoizpen sektore gehienetan, eta abar.

Teoria argi dago, orain praxi koherentea falta da. Horretarako, politika publiko askotan biraketa kopernikarra behar da, eta abian diren inbertsioak berriz ebaluatu behar dira; izan ere, baliabide urriko garai ekonomikoan murgiltzen ari gara, zeinean, halaber, oso handiak izango diren trantsizioei ekiteko eta gure gizarte-egiturak aro berrira egokitzeko inbertsio eta gastu publikoaren beharrak. Egoera horrek administrazio publikoak behartu behar ditu jarduteko lehen-tasunak berriz aztertzea eta garapen jasangarriaren printzipioen arabera esleitzera baliabideak, planteamendu oldarkor batekin: 0 oinarriko aurrekontuaren teoriak aplikatzea, ondo neurtuz egiaz zerk ematen

dion balioa gizarte ongizateari eta hantxe ardaztuz baliabideen esleipena, ahalik eta kudeaketa eraginkorrena eta efizienteena egin asmoz urritasun garai honetan.

Beraz, bada garaia ongizatearen kontzeptu berri baten ikuspegitik berriz ebaluatzeko gure lurraldean azpiegituretan egiten ari diren inbertsio nagusiak, eta luzamendu bat aplikatzeko errentagarritasun sozial eta ekonomiko egiaztatua frogatzen ez duten inbertsioei.

Bateragarriak al dira erroskillak ekonomia eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen eraikuntza, Abiadura Handiko Trena, Urdaibaiko Guggenheim, Donostiako metroa? Ez al gara etorkizuna hipotekatzeko ari nahitaz atzean utzi beharreko garapen-eredu bati dagozkion inbertsio politikekin?

## **Sektore publikoaren rola**

Amaitu da politika ekonomiko baliagarri bakarra zergak jaitea eta zerbitzu publikoak pribatizatzea dela aldeztzen duen neoliberalismoaren garaia. Erakunde publikoek beren erantzukizuna onartu behar dute, funtzio publikoa bermatu behar dute eta norabide berria eman behar diote garapen sozioekonomikoari. Izan ere, arautzeko eta birbanatzeko eginkizunetik harago, sektore publikoak rol ekintzailea jokatu behar du, modu proaktiboan esku hartu behar du nola ekonomian hala gizarte antolamenduaren edozein esparrutan, eraldaketari zentzua eta norabidea emanaz. Eta euskal enpresek, balio ekonomikoa sortzetik harago, aurre egin beharreko erronka sozialekiko konpromisoa hartu behar dute.

Horretarako, berriro definitu behar da sektore publikoak ekonomian duen zeregina. Ikuspegi sesgatua

nagusitzen da oraindik ere, zeinaren arabera, sektore publikoa aberastasuna xurgatzen edo, besterik gabe, banatzen duen eragilea den, baina ezin den berritzailea, aberastasunaren sortzailea eta arriskuen hartzailea izan. Ikuspegi horrek kalte egiten dio lankidetzara publiko-pribatu dinamiko eta interesgarria eraikitze-ko aukerari.

Gaur egun ospe handia duen Mariana Mazzucato ekonomistaren hitzak ekarriko ditugu hona: “Egungo eredu kapitalistak sektore publikoari uzten dio merkatuaren akatsak konpontzeko zeregin inozoa, eta hori beranduegi eta gutxiegi gertatzen da ia beti”. Sektore publikoaren eginkizuna ez da inguruneke baldintzak sortzea gero kapital pribatuak beharizan sozialeari “erantzun” diezaien. Sektore publikoak aldaketa teknologikorako norabidea finkatu behar du, eta norabide horretan inbertitu. Garaile konkretu bakanak identifikatzeko eta aukeratzeko ahaleginak egin behar diren, garapen ekonomiko eta teknologikorako norabide proiektatzeak aukeren panorama zabaltzen du, eta horrek eskatzen du sektore publikoak eragileen sare bat sortzea, aukera hori lankidetzara publiko-pribatuaren bidez baliatzeko prest egongo dena.

Ildo horretan, gobernuen eginkizunak proaktiboa izan behar du, sektore pribatua suspertuko duen eta berehalako eta epe luzeko erronkei irtenbideak eman go dizkien industria-estrategia modernoa sortu behar du. Dilema ez da nola berreskuratu ekoizpena eta kontsumoa ziklo ekonomikoaren atzerapen fasean, hau da, estatu keynesiarra merkatuaren akatsak zuzentzen, baizik eta erakundeak eta enpresak merkatu sortzaile aktibo izango dituen berrikuntza-politika garatzea. Laburbilduta, nola erlazionatzen diren erakunde publikoak eta pribatuak, arriskuak partekatuz, baina baita mozkinak ere.

**“Egungo eredu kapitalistak sektore publikoari uzten dio merkatuaren akatsak konpontzeko zeregin inozoa, eta hori beranduegi eta gutxiegi gertatzen da ia beti”.**

Behin baino gehiagotan egon da Mariana Mazzucato Euskal Herrian. Haren jarraitzaileak direla adierazi dute gure herriko erakundeetako ordezkari zenbait. Mazzucatoren ideiak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren dokumentu ofizialetan ageri dira jasota. Baina, berriz ere, handiegia da teoriaren eta praxiaren arteko aldea. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuari entzuna diogu: "Sektore berriak abiaraztea da gure zeregina. Ez gara herrialde komunista batean bizi. Jaurlaritzak ez du Euskaltelen jabe izan behar."

## **Gobernantza kooperatiboa**

Hain zuzen ere horixe da Nazio Batuek sustatutako 2030 Agendak aldarrikatu beharko lukeena Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorrira. Agenda global horrek zuzeneko interpelazioa izan behar du enpresentzat eta gizarte-eragileentzat, erakunde publikoen gidaritzapean, gure garaiko ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako erronka handiei irtenbideak bilatzen lagun dezaten. Horrela bakarrik egin dakiekeelako aurre parez pare ditugun erronka kolosalei.

Horretarako lidergo berriak behar ditugu, hasteko eta bereziki, erakunde publikoetan. Lidergo berriak politika publikoak garatzeko eredu zatikatuak eta loturarik gabek gainditu ahal izateko eta misioetan oinarritutako ikuspegi berri bat ezartzeko. Aurre egin beharreko erronka konplexuek eragile ezberdinak helburu partekatuen aldeko lankidetzan jarriko dituzten gobernanta-eredu berriak eskatzen dituzte, berrikuntza politikak gizarte eta ingurumen erronkei konponbideak ematera bideratuz eta garapenari norabide jasangarria, inklusiboa eta adimentsua emanez.

Une historiko honek berrikuntza irekian oinarritutako gobernantza-ereduak eta lidergo kooperatiboak behar ditu. Lidergo berri horien ezaugarri behar dute pertsonak, proiektuak eta erakundeak konektatzeko gaitasuna, zentzu berritzailea, esperimintatzeko ausardia, eraldaketa disruptiboak bultzatzeko anbizioa eta asoziazionismoa eta auzolana sustatzeko grina.

Bizi dugun ziurgabetasun-testuinguru honetan, Euskal Herriaren indartze komunitarioa izango da gure ongizatearen berme nagusia, eta horrek lidergo partekatuak sortzeko eta gaitasun handiko jendartea ehuntzen laguntzeko instituzionaltasun berriak eskatzen ditu.

**Une historiko honek berrikuntza irekian oinarritutako gobernantza-ereduak eta lidergo kooperatiboak behar ditu. Lidergo berri horien ezaugarri behar dute pertsonak, proiektuak eta erakundeak konektatzeko gaitasuna, zentzu berritzailea, esperimintatzeko ausardia, eraldaketa disruptiboak bultzatzeko anbizioa eta asoziazionismoa eta auzolana sustatzeko grina.**

05

# Euskal eredua

Asko izan da gure herriaren garapen sozial, ekonomiko eta kulturalaren hainbat arlotan orain arte lortutakoa, eta garrantzitsua da horri balioa ematea. Euskal Herria gai izan da Otxandio, Durango eta Gernikako errautsetatik eta Nafarroako kunetetan lurperatutako izugarrikeriatik biziberritzeko; gai izan da euskal kultura eta nazioa suntsitzeko saioei aurre egiteko, nazio-erakuntza garaikidearen prozesuari ekiteko eta gure inguruko herrialdeetakoekin homologatu daitekeen ongizate-sistema batez hornitzeko. Ez da lan makala, eta berriz diogu, garrantzitsua da bere balioa aitortzea.

Euskal tradizio politiko ezberdinak sarritan erortzen gara horren guztiaren meritua norena izan den eztabaidatzeko ariketa zentzugabeen. Argi izan beharko genuke guztiok azken hamarkadetan egin dena modu kolektiboan egin dela eta ikuspegi komunitario eman-tzipatzaile argi bati eutsi dioten askotariko herritarren lan eskergari esker egin dela. Bada garaia iragan hurbilari buruzko eztabaida alderdikoi oro alde batera uzteko. Aitortu beharra dago XX. mendearen bigarren erdialdean abiatutako eraldaketa prozesu hori lidergo ugarien bidezko talde lana izan zela, eta herri honetako tradizio politikook protagonismo partekatua izan genuela. Herri hau eraikuntza nazionaleko prozesu baten bidez iritsi da bizirik XXI. mendera. Eta prozesu hori sistema instituzionalaren eragintzan zein autoantolaketa komunitarioan eta bultzada sozialean oinarritu da. Garaia da iragana herri gisa errentabilizatu eta etorkizunera proiektatzeko.

Mundua, oro har, eta Europa, bereziki, aldaketa sako-neko garai historiko bati aurre egin beharrean aurkitzen dira. Eta gu iraganeko errentetatik bizi gara, inertziak kudeatzen ari gara eta ez dugu behar adinako ikuspegi estrategikorik eta lidergo eraldatzailerik une historiko honek aurrean jartzen dizkigun erronka erraldoiei aurre egiteko.

Horrela, bizi dugun unearen araberako erreakziorik ez badago, lortutakoaren zati handi bat galtzeko arriskua dugu, berdintasun eta garapen indizeetan atzera egiteko arriskua, hain dinamikoak ez diren Europako eskualdeekin berdindu arte. Amets egiteko gaitasuna berreskuratu behar dugu, eta gure herria etorkizun itxaropentsu batera eramango duen zerumuga berri bat finkatu behar dugu. Gure gaitasunetan eta indarretan sinetsi behar dugu, eta anbizio kolektiboa berreskuratu, Europako testuinguruan erreferente izan nahi duen eredu sozioekonomiko berdinzale eta jasangarria eraiki asmoz.

Historian zehar herri honen ezaugarri izan den anbizio komunitarioan oinarrituta, pentsatzeko eta jarduteko eredu propio batetik egin behar diogu aurre garai honi, gure lurralde eta gizarte gaitasunen arabera betiere. Une historiko honek eskatzen duen eraldaketa sozial eta ekonomikoa euskal eskalan funtsatu behar dugu, gure buruak kontrolik gabeko dinamiketatik babesteko eta elkar zaintzeko lotura komunitarioak indartzeko. Euskal eraldaketa sozial eta ekonomiko burujabearen alde egiten dugu, gure ahalmenak kamustuko dituzten mugarik gabe.

Horrek zentzu komunitario sakona eskatzen du, komunitate ireki eta solidario bateko kide izatearen zentzua. Deserrotze eta identitate krisi garai honetan, non segurtasun materiala izateko grina bezalatsu adierazten baita zerbaiten kide izateko grina, edozein proposamen eraldatzailek oso adi egon behar du iruditeria nazionalen sustraituen dauden sinesmenekin edo memoriekin bat egiteko. Joseba Sarrionandiak proposatzen duen nazio-kontzeptuak balio digu hemen: nazioa komunikazio-espazio gisa.

Feminismoa, ekologismoa eta justizia soziala, gure kulturen eta lurraldean ondo errotutako identitate

**Amets egiteko gaitasuna berreskuratu behar dugu, eta gure herria etorkizun itxaropentsu batera eramango duen zerumuga berri bat finkatu behar dugu. Gure gaitasunetan eta indarretan sinetsi behar dugu, eta anbizio kolektiboa berreskuratu, Europako testuinguruan erreferente izan nahi duen eredu sozioekonomiko berdinzale eta jasangarria eraiki asmoz.**



komunitarioarekin batera, horiexek dira une historiko honi aurre egiteko euskal eredia gidatu behar duten indar bektoreak. Ondoko printzipio gidaria aintzat hartuta betiere, eskubide guztiak pertsona guztientzat.

## **Etorkizuna prestatzea**

Ez dira asko euskal jendarteari eman diezazkiokegun ziurtasunak kaosean murgilduta dagoen mundu globalizatu honetan. Zintzoak izan behar dugu. Belaontzi txiki bat gara, ozeano amorratu baten erdian. Arazo zailei irtenbide errazak eskaini nahi izatea, edo zinismo arduragabearen erortzea da, edo bestela, agenda autoritario erregresiboekin lerratzea. Egin dezakeguna da une historiko honi berdintasunezko erantzun demokratikoa ematen saiatzea, gure herri senetik abiatuta. Berriro diogu aurrean ditugun erronkei aurre egiteko ahaleginak gure sen komunitarioa izan behar duela abiaburu eta gure lurralde eskalan oinarritutako konponbideak ipar. Badugu aukera horretarako, eta gure erantzukizuna da saiatzea.

Datozen urteetan hartuko diren eta hartuko ez diren erabakiek eragin erabakigarria izango dute gure eta etorkizuneko belaunaldien ongizatean. Aurten jaioko diren haurrak 2040an iritsiko dira adin nagusitasunera. Ordurako Euskal Herria erabat aldatuko da gizarte, ekonomia eta kulturaren ikuspegitik. Etorkizuna prestatu daiteke, modu batekoa edo bestekoa izateko eragin dezakegu. Erreakzionatzeko garaia da, ikuspegi estrategiko sendo bat aktibatzeke garaia. Euskal Herria 2040an nolakoa izatea nahi dugun irudikatu behar dugu, eta protagonistak izan gaurtik aurrera abian jarri behar diren eraldaketa-prozesuetan.

Belaunaldien arteko langintza da honako hau, ezinbestean, eta bakoitzak bere lekua hartu behar du.

**Berriro diogu aurrean ditugun erronkei aurre egiteko ahaleginak gure sen komunitarioa izan behar duela abiaburu eta gure lurralde eskalan oinarritutako konponbideak ipar. Badugu aukera horretarako, eta gure erantzukizuna da saiatzea.**

Gazteek etorkizun itxaropentsuari atea irekitzeko ardura dute, adin ertaineko pertsonak eraldaketa-prozesu horri beren bizitzako urte emankorrenak eskaintzeko aukera, eta adinekoek etorkizuneko belaunaldien ongizatearen alde borrokatzekoa.

Eta belaunaldien arteko langintza horretan, emakumeek dagokien lekua hartu behar dute. Emakume belaunaldi berri bat ari da dagoeneko zuzendaritza eta lidergo lanak egiten praktika politiko eta instituzionalean. Lidergo erreparatzailea eta eraldatzailea da, beharrezko ikuspegi feminista txertatzen baitu erakuntza nazionalean eta sozialean.

06

# Bide-orria: bost herri- erronka

Kontua une historiko honi aurre egiteko euskal ereduak ardatz izan behar dituen erronka nagusiak identifikatzea da, gure potentzial komunitarioa zein misionen inguruan egituratu behar dugun zehaztea. Sinergiak artikulatzeko eta herrialde gisa ditugun gaitasunak askatzeko balioko duen bide orria definitzea. Izan ere, euskal jendarteak une historiko honetan aurre egin behar dien eztabaidek legegintzaldi baten epealdia luzaz gainditzen dute, eta izaera estrategikoa eta belaunaldikoa dute.

EH Bilduk bost erronka nagusi identifikatzen ditu, jarraian azalduko ditugunak. Horietako bakoitzaren garapen zehatzak gainditu egiten du dokumentu honen irismena. Datozen hilabeteetan garatuko ditugu bide-orri honekin lerrokatzen diren proposamen sektorialak.

### **Subiranotasun estrategikoa indartzea**

Testuinguru historiko honetan, garrantzia berezia hartzen du subiranotasun estrategikoak: ahalik eta buruaskitasun handiena izatea funtsezko prozesu sozioekonomikoetan, fenomeno globalen aurrean erresilientzia izateko. Euskal Herriak gogoeta estrategiko bati ekin behar dio premiaz: buruaskitasunean nola aurrera egin energiari eta elikadurari dagokionez, eta nola garatu lurraldean errotutako balio erantsi handiko industria-sarea.

Gure subiranotasun estrategikoa indartzeko prozesuek estu lotuta egon behar dute klimatikoki neutroa den ekonomia baterantz urrats sendoz aurrera egiteko premia larriarekin. EAEn Parisko klimari buruzko goi bilera egin aurreko plan estrategiko klimatiko eta energetikoekin iritsi gara une honetara. Lehenengo erabaki nagusia da non kokatu anbizio klimatikoa, eta

**Kontua une historiko honi aurre egiteko euskal ereduak ardatz izan behar dituen erronka nagusiak identifikatzea da, gure potentzial komunitarioa zein misionen inguruan egituratu behar dugun zehaztea.**

–

**Testuinguru historiko honetan, garrantzia berezia hartzen du subiranotasun estrategikoak: ahalik eta buruaskitasun handiena izatea funtsezko prozesu sozioekonomikoetan, fenomeno globalen aurrean erresilientzia izateko.**

gure ustez, ezin da Europar Batasunak adierazitakoaren azpitik egon, zalantzarik gabe.

Horretarako, estrategia oso bat diseinatu behar da neutraltasun klimatikoa finkatutako epeetan lortzeko. Bide-orri argi eta koherente bat behar dugu, arlokako estrategiari (energia, elikadura-sistema, mugikortasuna, hondakinen kudeaketa eta abar) koherentzia emango diena, eta finantzaketa-plan bat, epe labur, ertain eta luzera ezarritako helburuekin bat etorriko dena. Gure gizarte-antolamendu osoa zeharkatzen duen eginkizun kolosalaren aurrean gaude, aldi berean erronka demokratiko handia ere badena.

NFKn badago klima aldaketari aurre egiteko bide-orri instituzional bat, KLINA planean finkatua, eta onartu berri den Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean finkatutako lege-esparru bat. EAEn oraindik ez dira lehen urrats horiek ere eman. Horregatik, premiazkoa da lurralde-ikuspegi orokorra hartzea, lurralde-eremuen arteko sinergiak ezartzeko eta ahalik eta zehaztasun handieneko plana ezartzeko.

Euskal ekonomiaren indargunea, EAEn zein NFKn, bere industria-izaeran oinarritzen da. Manufaktura-jarduerari lotutako balio erantsiaren sorrerak gizarte eta lan baldintza hobekak eta zerga-sarrera handiagoak ahalbidetzen ditu zerbitzu publikoen sistema sendo bati eusteko orduan. Herri gisa, benetako erronka da euskal industriak datozen urteetan lanaren etorkizuneari aurre egiteko diren aldaketetara egokitzeko eta ekonomiaren trakzio elementua izaten jarraitzeko egin behar duen jauzia egin dezan lortzea; areago kontuan hartuta eragileen hazkundeari eta iraultza teknologikoari ekoizpen-sistemen trantsizio sozioekologikoren erronka saihetsezina gehitu behar zaiela.

**Euskal Herriak  
gogoeta estrategiko  
bati ekin behar  
dio premiaz:  
buruaskitasunean  
nola aurrera  
egin energiari  
eta elikadurari  
dagokienez,  
eta nola garatu  
lurraldean  
errotutako balio  
erantsi handiko  
industria-sarea.**

Erakundeetatik abiatuta, politika industrial aktibo baten alde egiten dugu, industrian rol bultzatzaileak bere gain hartuko dituen, aberastasuna sortzeko, jasangarritasuna, banaketa bidezkoagoa eta kalitatezko enplegua sortzea eta mantentzea bermatzeko, eta produkzio-sarea balio erantsi handiagoko jardueretan kokatzeko. Esku hartzeko bost arlo identifikatzen ditugu.

1/ Enpresa ertain eta handien posizionamendua hobetzea.

Industria-politikari dagokionez, politika publikoak eta esku hartzeko tresnak birdiseinatzea. Jarduera irmoagoa, plangintza indikatibo handiagokoa eta enpresa-jarduerak dinamizatuko dituen, sektore publikoak ekonomian zuzenean eta zeharka esku hartzearekin batera, eskura dauden mekanismoen bidez eta ahal den marjina handienez kokatuz.

Sektore publikoaren izaera ekintzailea ustiatzea, industria politika posizio proaktiboagoetara birbidertuz, misiora bideratutako proiektuak bultzatuz.

Enpresen arteko lankidetzak politikak berriz diseinatzea: Kluster politiken gaineko gogoeta eta ebaluazio berria, batez ere eraginkortasunari, efizientziari eta potentzialtasunari dagokienez.

Alemaniko estatu federatu batzuetan aplikatzen diren antzeko politikak sustatzea beren merkatuan lide-rrak diren 30-58 enpresa txiki eta ertainak, ezkutuko txapeldunak deituak, indartzeko.

2/ Enpresa txiki eta ertainen posizionamendua hobetzea. Industria-politikaren gobernantza zabaltzea eskualdeetako garapen agentziak sartuta.

Enpresa txikien ahulguneei banaka aurre egitea, Gipuzkoako aurreko Aldundiak UPV/EHUrekin eta

TKNIKArekin elkarlanean burututako Garaituz programak eskainitako esperientzien gisakoei jarraipena emanaz.

3/ Kudeaketa aurreratua sustatzea eredu berriak ezarriz, enpresa eredu inklusibo eta parte hartzailea sustatuz eta lan harremanak hobetuz.

Langileen parte-hartzea hiru esparrutan sustatu behar da: kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan. Elkarte (edo antzeko) baten sorrera sustatu behar da, eredu horren ezarpenak erreferentzia kolektiboa izan dezan, esperientzien eta ezagutzen transmisioaz elika dadin, eta laguntza tresnak baliatu ahal izan ditzan.

4/ Berrikuntza eta teknologia politika, I+G+b kalitatezkoan eta efizientean inbertituz; eta hezkuntza sistema eta enplegu politika arin eta kalitatezkoak, pertsonak 4.0 industriaren etorrerak dakartzan aldaketetara prestatzeko gai izango direnak.

Berrikuntza ez teknologikoa sustatzea, berrikuntza teknologikoaren osagarri gisa. Gaur egun, oro har, onartuta dago enpresen berrikuntza eta arrakasta ekonomikoa ez direla nahitaez goi teknologiaren erabilerara edo I+Gko gastura mugatzen. Era berean, eragin handia dute marketing-sistema eta marketing-teknika berriek, merkaturatze-bideek, diseinuak, antolamenduak, ekoizpenak eta finantzak. Euskal enpresek defizit garrantzitsuak dituzte arlo horietan.

5/ Erabakitze-guneak hobetzea eta horiei eustea, eta lurraldearekiko erantzukizuna. Kanpo-inbertsiorako lurralde erakargarria izateak ez du kapitala kanpoko enpresen esku uztearen sinonimo izan behar, are gutxiago inbertsio-funtsak direnean eta bilatzen duten gauza bakarra finantza-eragiketa espekulatibo hutsen bitartez epe motzeko errentagarritasuna denean. Joera

horri aurre egiteko, gizarte-ekonomiaren parametroetatik hurbil dauden enpresa-formulak garatu beharko lirateke.

Horretarako, langileek enpresaren kudeaketan, emaitzetan eta kapitalean parte hartzea interes orokorrekoa dela adostu behar da. Eta, aldi berean, berrikuntza soziala sustatu behar da enpresa-kudeaketan, gobernantza-eredu eraginkorragoen eta parte hartzaileagoen bidez.

### **Ongizate egiturak eraldatzea**

Errealitate demografiko berriak, lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketek eta bizi dugun ziurgabetasun ekonomikoak gure ongizate egiturak birpentsatzera behartzen gaituzte: osasun sistema publikoa bermatu behar da, gizarte-zerbitzuak zaintza publiko-komunitarioko sistema baterantz eraldatu behar dira, enplegu-politikak birdiseinatu egin behar dira, eguneratu egin behar dira gizarte-babeseko mekanismoak, eta egiturazko neurriak hartu etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko.

Pandemiak agerian utzi ditu osasun-sistema ahulduak, egoera berrietara egokitzekeo egiturazko arazoak izan dituztenak. Hauxe da une honetan jokoan dagoena: kalitatean azken urteetan gertatu den atzerapean sakonduko den, lehen mailako arretaren kasuan agerikoa dena, ala berriz ere helduko zaion kalitatezko osasun-sistema publiko baten aldeko apustuari, sistemaren beraren funtsezko oinarria lehen mailako arreta izanik.

Une honetan berriz ere definitu behar dira gizarte-zerbitzuak, ongizate-estatuaren laugarren zutabea deituak. Egiturazko berrikuspen bat behar du gaur

**Errealitate demografiko berriak, lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketek eta bizi dugun ziurgabetasun ekonomikoak gure ongizate egiturak birpentsatzera behartzen gaituzte: osasun sistema publikoa bermatu behar da, gizarte-zerbitzuak zaintza publiko-komunitarioko sistema baterantz eraldatu behar dira, enplegu-politikak birdiseinatu egin behar dira, eguneratu egin behar dira gizarte-babeseko mekanismoak, eta egiturazko neurriak hartu etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko.**



egungoaren oso bestelako errealitate soziodemografikorako diseinatu zen gizarte-zerbitzuen sistemak: Kontzeptualizazio berri bat, zaintzari kategoria politikoa aitortuz eta gaur egun ekonomiaren eremu ikusezinetan egiten diren lan asko ordainsarien eremura aterata; horrek, gainera, enplegua sortzeko eta ekonomia dinamizatzeko iturri gisa balioko luke, are gehiago krisi-garaiotan.

Horretarako, beharrezkoa da zaintza-zerbitzu guztien egitura berrantolatzea, osasun-zerbitzuei dagokienez Osakidetzaaren edo Osasunbidearen baliokidea den erakunde publiko bakar baten babespean bilduta. Horrek, aldi berean, zaintza-zerbitzuen gobernantza-eredu berri bat eskatzen du, mendeko pertsonak etxetik edo inguru hurbilenetik ahalik eta gertuen artatu ahal izateko printzipioan oinarritua; eta horrek, bere aldetik, zerbitzuen arteko sinergiak ahalbidetu beharoko lituzke, eta erakunde maila desberdinen ekarpena koherente egin. Beraz, zaintza sistema publiko-komunitario bat diseinatu eta antolatu behar da.

Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa gauzatzeari dagokionez, asmo handiagoko ikuspegi publikoa behar da, pertsonak etxebizitza egokiak eta eskuragarriak izango dituztela bermatzeko. Funtsezko politikak irabazi asmorik gabeko eragileek garatu eta administratutako etxebizitza parkearen ehuneko orokorra handitzea izan behar du. Horrekin batera, gehiago arautu behar da alokairu pribatuaren sektorea, alokairu maila eskuragarriak soldata baldintzei lotuta egon daitezen, eta titularrari segurtasuna eman dakion.

Gizarte-babeseke sistema izan da gure autogobernu sistemaren zutoihal nagusia. Diru sarrerak Bermatzeko Errenta bezalako tresnekin gizarte ongizateko sare bat eraikitzeak ahalbidetu du gurean estatuko beste leku batzuetan baino gizarte berdintasun maila handiagoak

lortzea. Hala eta guztiz ere, lehen ere azaldu dugunez, gaur egun euskal babeseko sistema ez da lan- eta bizi-baldintzen prekarizazio-prozesuei aurre egiteko eta jendartearen baitan indartzen ari den gizarte dualizazioaren aurka borrokatzeko gai. Foessa fundazioaren 2022ko txostenean egoki adierazten denez, azken hamarkadetan ez da inoiz hainbeste jende egon beren berehalako etorkizun ekonomikoa aurreikusteko gaitasunik gabe.

Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialen Departamentuko errealitate sozialaren Behatokiaren txostenak berak dio Nafarroako Errenta Bermatuko sistema giltzarria dela pobreziaren aurkako borrokan, herritarrentzako azken segurtasun ekonomikoko sarea baita. Errealitatea da 2008tik familia-unitate eta pertsona onuradunen hazkundea etengabea izan dela. 2019ko emaitzak agerian uzten du, Errenta Bermatuak ez duela lortzen pobrezia larriaren atalasea gainditzea hura jasotzen duten etxe gehienetan.

Beraz, behar-beharrezkoa da prebentzio, babes eta gizarte segurantzako sistema osoa berrasmateza. Ongizate eta gizarte babeseko sistema unibertsal, publiko eta kalitatezko baterantz jo behar da, belaunaldien arteko eta belaunaldi baitako konpromisoa hartuko duena eta prestazio eta babes modu berriak ahalbidetuko dituena. Elkarri lotutako politika guztiak biltzeko tresna egokiak dituen sistema: Kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak, oinarritzko errenta edo gizarteratzeko errenta, eta maila bakoitzari lotutako gizarte-politikak.

Gizarte-babesa zuzenean dago lan-harremanekin lotuta. Gure ekoizpen sarearen berezko ezaugarriek eta dauden gehiengo politiko eta sindikal desberdinek behar-beharrezkoa egiten dute Lan Harremanen Euskal Esparrua eratzea, euskal erakundeek eta gizar-

te- eragileek (sindikatuak eta enpresaburuek) honako hauek definitu ahal izan ditzaten: “Langilearen estatutua”, langileen oinarritzko lan eskubideak hiru unek erabakigarritan finkatuta: kontratazioa, lan-baldintzen zehaztapen dinamikoa eta lanaldiaren amaiera; negoziazio kolektiboa garatzea, estatuko markoek euskal langileen lan-baldintzetan interferentziarik izan gabe; lan-merkatuan gertatzen ari diren eraldaketan aurrean hain beharrezkoak diren politika aktibo eta pasiboen diseinuan eta etengabeko prestakuntzako politiketan gaitasun propio eta eksklusiboak dituen Lanbide bat; eta askatasun sindikalari buruzko gure legea, besteak beste, langileek enpresan duten parte-hartzea balioztatzekeko modu berri bati helduz.

Bestalde, lanaldi-murrizketari edo hainbat arrazoiri lotutako lanaren banaketari buruzko eztabaida plaza publikoan jartzeko ordua iritsi da, hala nola errentaren eta aberastasunaren banaketa, produktibitatearen gehikuntza eta eskulanaren beharrak egungo testuinguru teknologikoan, zaintza-lanen onarpen kolektiboa, baliabide naturalen agortzea eta ondoriozko hazkunde ekonomikoaren eta enplegu nagusiaren ereduaren mugak.

Enplegua lege bidez banatzeko politikari ekiteko mugak direla-eta, negoziazio kolektiboaren esparruak indarra hartzen du politika horiek definitzeko esparru gisa, esparru horietan maniobratzeko tarte handia baitago, orain arte gutxi aztertu bada ere. Lanbide arteko hitzarmenetan (interesgarriena, aplikazio-eremua handiagoa delako) nahiz sektoreko edo enpresako hitzarmenetan ezar daitekeen erregulazioaz ari gara.

## **Ezagutza-sistemak berritzea**

Garai guztietako gizarterik konplexuena kudeatuko duten pertsonak hezteko beharrak eta erronka sozial kolosalek hezkuntza-sistema eta eskola-jarduera bera birpentsatzera garamatzate. Euskal hezkuntza sistemaren konfigurazioan aurrera egiteko garaia da, EAEn zein NFKn, baita Lanbide Heziketa indartzeko eta Euskal Unibertsitate Esparrua egituratzeko garaia ere, gizarte-erronken mesedetan jardungo duen ikerketa eta garapen sistema koherente bat eratuz. Hezkuntza da, hain zuzen ere, zutabe sendoenetakoa herri baten eraikuntzan.

Iritsi da euskal hezkuntzari zorrotzasunez begiratzeko unea. Asko egin da, baina era berean asko dago egiteke. Egungo eta etorkizuneko erronkei eman beharreko erantzunak zera eskatzen du: (i) berrikuntzaren kulturaz jabetzea; (ii) hezkuntza-prozesuari aplikatu dakizkiokeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; (iii) ikasle kritikoak hartzea ikaskuntzaren subjektu aktibo gisa, bai eta ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten familiak eta irakasleak ere; (iv) hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola antolamendua eraikitzea, euskal ingurune soziokulturalarekin eta instituzionalarekin elkarreraginean jardungo duten ikastetxe ahaldunduekin; (v) gobernantza eredu berri bat ezartzea, erantzukidea, lankidetzakoa eta deszentralizatua; eta (vi) hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzea.

Unibertsitate Esparru propiorik gabe ez dago nazio kulturik. Ezagutza dugu gure etorkizuna eraikitzeko lehengai bakarra. Ezagutzarik gabe ez dago berrikuntzarik, ez industrian ez gizartean. Zerbait berria lortzeko, berritzaileak izateko, zerbait desberdina egiteko, jakin beharra dago. Eta horretarako bi aukera daukagu: edo guk geuk sortzen dugu, edo dagoen lekutik ekartzen dugu. Eta bi aukera horietan behar-beha-

**Garai guztietako gizarterik konplexuena kudeatuko duten pertsonak hezteko beharrak eta erronka sozial kolosalek hezkuntza-sistema eta eskola-jarduera bera birpentsatzera garamatzate.**

—

**Euskal hezkuntza sistemaren konfigurazioan aurrera egiteko garaia da, EAEn zein NFKn, baita Lanbide Heziketa indartzeko eta Euskal Unibertsitate Esparrua egituratzeko garaia ere, gizarte-erronken mesedetan jardungo duen ikerketa eta garapen sistema koherente bat eratuz.**

rrezkoak dira ongi prestatutako pertsonak. Goi mailako ezagutza sortzen, aztertzen, hedatzen, gizarteratzen, transferitzen, kritikatzeko eta erabiltzeko dakiten pertsonak.

Euskal Unibertsitate Esparruak prestigioa duen unibertsitate publiko bat izan behar du ardatz, eta behar adina baliabide ekonomiko izan behar ditu kalitatezko irakaskuntza funtzio inklusiboa bermatzeko eta unibertsitatearen funtsezko zutabea garatzeko: ikerketa. Hain zuzen ere zutabe horren gainean eraiki behar dugu unibertsitatearen etorkizuna, irakaskuntza, transferentzia eta zabalkundean oinarrituta. Ez da benetako unibertsitatea nazioarteko aintzatespena duen ikerketarik egiten ez duen unibertsitatea. Iritsi da gure ikertzaileak, bereziki gazteak, duintasunez tratatzeko unea.

Bestalde, behar-beharrezkoa da egungo zientzia, teknologia eta berrikuntza sarea berrantolatzea, eta aldi berean, euskal zientzia eta teknologia esparrua unibertsitatearen inguruan egituratu behar da: nazioarteko mapan erreferente gisa kokatuko gaituzten arloetan espezializatzeko esparrua, ekoizpen zientifiko handiari esker industria sektore lider bati eta gizarte gaitu bati lagunduko diona. Balio erantsi handiko filosofia, produktuak, artea, politika, kultura, gizarte-politika, ekonomia eta abar lortu nahi baditugu, funtsezkoa da unibertsitateko ikerketa.

Pandemian zehar argi eta garbi ikusi denez, ikerketan eta garapen publikoan egiten den inbertsioa ez da gastu bat, ez da diru-laguntza bat, ez da luxu bat, baizik eta gizarte-erronkei erantzuteko funtsezko estrategia. Politika zientifikoek finantzaketa jasangarria eta iraunkorra, lege espezifikoak eta burokrazia gutxi uztartu behar dituzte. Tamalez, I+Gko inbertsioa, azken urteetan, aurreko hamarkadaren hasieran lortu-

**Hezkuntza da, hain zuzen ere, zutabe sendoenetakoa herri baten eraikuntzan.**

tako mailaren oso azpitik egon da. Gaur egun, Europan egiten den inbertsio mailaren batez bestekoaren oso azpitik gaude.

Lanbide Heziketari dagokionez, iritsi da hezkuntza sistemaren erdigunean kokatzeko unea, lan praktiketan eta sistema dualean aurrera egiten jarraitu ahal izateko. Industriaren beharrei erantzuteaz gain, lan munduan gertatzen ari diren aldaketa eta aukera berriei lotuta egon behar du Lanbide Heziketak: osasuna, ekonomia zirkularra, biztanleriaren zahartzea, eta abar.

### **Identitate komunitarioa indartzea**

Neoliberalismoak komunitate loturak suntsitu eta kolektiboa dena, komuna dena, salgai bihurtu du; soberan ditu sare komunitarioak, norbanakoa merkatuaren aurrean bakar-bakarrik behar du. Merkatu askearen utopia erori ondorengo garaian, gizarte hauskorrek eta zatikatuak ditugu. Neoliberalismoaren ondorio sakonena eta iraunkorrena, hain zuzen ere, gizarte zibila suntsitu izana eta gizarte kontsumistak eta indibidualistak utzi izana da.

Beraz, funtsezko aldagai bihurtu da identitatea, deserrotzeak komunitate bateko kide sentitzeko beharra sortzen baitu. Eta komunitate irekia eta solidarioa izatea lortzen ez badugu, nazionalismo erreakzionarioek hartuko digute aurre eta segurtasuna eskainiko dute komunitate baztertzailaren ikuskeraren bitartez. Beraz, datozen urteetan, identitate komunitarioaren eraikuntzak eraldaketa-prozesu ororen erdigunean behar du, eta hortaz, kultura entretenimendu hutsarekin lotzea, kulturaren kontsumoa turismora bideratzea edo euskara gizarte-erlaketaren funtsezko elementutzat ez hartzea ezer gutxi ulertzea da.

**Neoliberalismoak komunitate loturak suntsitu eta kolektiboa dena, komuna dena, salgai bihurtu du; soberan ditu sare komunitarioak, norbanakoa merkatuaren aurrean bakar-bakarrik behar du. Merkatu askearen utopia erori ondorengo garaian, gizarte hauskorrek eta zatikatuak ditugu. Neoliberalismoaren ondorio sakonena eta iraunkorrena, hain zuzen ere, gizarte zibila suntsitu izana eta gizarte kontsumistak eta indibidualistak utzi izana da.**

Iragan mendearen bigarren erdialdean abiarazitako euskalduntze-prozesua gai izan zen euskarak mundu modernoan biziraun zezan eta garatu zedin oinarrizko egiturak eraikitzeko: hizkuntza estandarra, ikastolak, ikus-entzunezko hedabideak, prentsa idatzia, kultura-industria, eta abar. Azterketa orokor baten argitan, baieztatu dezakegu aurrerapen nabarmenak lortu direla euskararen ezagutzan zein erabilera sozialean, baina desoreka handiekin lurraldearen arabera.

Asko lortu da, eta dagokion neurrian aitortu behar da. Aitzitik, une hauetan, euskalduntze-prozesuak agortze-sintoma argiak adierazten ditu, eta lurralde batzuetan goia jo dute indarrean dauden hizkuntza-politikek. NFKaren kasuan, indarrean dagoen lege-dia eta hamarkadetan garatutako hizkuntza-politikak oztopo izan dira prozesu horretan, baita geldialdia eta atzerakada gertatzeko arriskutsuak ere. Beste zerumuga bat marraztu behar da, eta gaur egungo munduan beharrezkoa den hizkuntza-politika diseinatu behar da, euskalduntze-prozesuaren fase berri bat irekitzeko eta hizkuntza-normaltasuna erdisteko.

Kultura-politika sendorik ez badugu ere, Euskal Herrian askotariko kultura-ekimen herrikoiak eta gune operatiboak ditugu, kultura normalizatzen ez ezik, aire berriak ekartzen ere lagundu dutenak. Kohesioa, identitatea, eztabaida, transmisioa, komunitatea, espiritu kritikoa, sorkuntza eta ekoizpena modu batera edo bestera sustatuz, kultura biziari eusten eta kultura hori partekatzen laguntzen dute, bai tokiko mailan, bai nazio mailan.

Kultura partekatua behar dugu, eta horretarako, sorkuntzari prestigioa emango dion politika behar dugu, lanpostuak sortuko dituen, lehendik daudenak mantentzen lagunduko duena eta, berezko kultura industriaren bidez, sorkuntza eta ekoizpen-prozesuetan

bizitasuna txertatuko duena. Kultura horrek, komunitatea eraikitzeke prozesu gisa ulertuta, barne aniztasuna errespetatu behar du, euskara sustatzeko eta dinamizatzeke elementu gisa balio behar du eta gizarte maila, adin eta genero guztientzat eskuragarri egon behar du. Azken batean, kultura-kudeaketaren gobernantza demokratikoa eta ekimen autogestionatuaren garapena bateragarri egingo dituen kultura-politika behar dugu.

Besteak beste, honako ekintza hauek egin behar dira kultura-adierazpenak babesteko eta indartzeko: (i) curriculum propio bat garatzea eskolan transmisioa bermatzeko eta kultura kontsumitzen duen gizarte hezteke; (ii) artisten bizi-baldintza prekarioei aurre egitea, kontuan harturik euskal kultura ekoizpenaren bereizgarritasunak eta prestazio bereziak aurreikusirik hain arruntak diren behin-behinekotasun egoerei aurre egiteke; (iii) arautu gabeko kultura eta amateurtasuna sustatzea, eta laborategi sortzaileak bultzatzea; (iv) kultura-ekipamenduak aintzat hartzea hirigintza-plangintzan, beti ere gentrifikazio arriskua kontuan harturik; (v) I+G+b kulturalaren alde egitea transmisioari eta zabalkundeari dagokienez; (vi) ikusgarritasuna sustatzeko aukera berriak aztertzea, lan artistikoen sustapena eta zabalkundea areagotuz.

Euskal kultura-ekosistema iraunkorra lortzeko, behar-beharrezkoa zaigu, aldi berean, komunikazio-esparru osoa izatea: multimedia, elebiduna euskara lehenetsiz eta irekia euskarri guztietan, bai EAEn zein NFKn, eta iragazkorra eta prestigioduna Ipar Euskal Herrian. Horretarako, sektore ekonomiko kultural eta komunikatibo garrantzitsua behar da, batez ere ikus-entzuzkoen, multimediarren, softwarearen, aplikazioen eta bitarteko digitalen sarean arloan. Beharrezkoa da kultura eta komunikazio politikaren zentraltasuna aldarrikatzea, eta politika hori industria eta berrikuntza politikekin lotzea, lehentasunezko sektoretzat hartuta.



EITBk, gaur egun hainbat krisik eraginda dagoenak (legitimitatekoak, nortasunekoak, komunikazio-ekosistema global berrira egokitzekoak eta, neurri txikiagoan, finantzaziokoak), rol garrantzitsua izan behar du Euskal Komunikazio Esparruaren antolaketan. Multimedia gisa pentsatutako EITB bat izan behar du, plataforma anitzekoa, erabiltzaileak/edukiak ardatz izango dituen eta programazio, erredakzio, ekoizpen, kanpo-harreman eta hedapeneko elementuak partekatzera bideratua egongo dena.

### **Segurtasun-eredu propioa garatzea**

Zalantzarik gabe, segurtasuna izango da testuinguru honetan gizarte-joerak zehaztuko dituen faktore garrantzitsuenetako bat. Segurtasun falta sumatzen dugu, gure eguneroko bizitzak eta etorkizuneko proiektzioak baldintzatzeko gaitasuna izan dezaketen balizko arriskuak antzematen ditugu. Lehenengo pertsona bizi izan dugu covid-19arekin, duela urte gutxi batzuk urruneko distopia irudituko litzaigukeena. Hain zuzen ere, datozen urteetan ugariak izango dira gure ongizatea eta egonkortasuna mehatxatuko dituzten faktoreak. Horietako asko berriak, orain arteko gizarte-formetan ezagutu gabeak.

Beharrezkoa da segurtasun-paradigma berri bat diseinatzea giza-segurtasunaren ikuspegi integrala izateko, dauden segurtasun-arazoaren konplexutasunaren eta mehatxuen arteko erlazioari erantzuteko. Izan ere, dualizazio sozialak, klima-aldaketaren ondorioek, pandemiak, eraso zibernetikoak, egoera ekonomiko eta finantzarioaren ezegonkortasunak eta abarrek gaitasunak egiten dute segurtasunaren kontzeptu tradizionala.

Segurtasunaren bost dimentsio, gutxienez, bereziki kontuan hartu behar dira aro honetan: pertsonala

**Zalantzarik gabe, segurtasuna izango da testuinguru honetan gizarte-joerak zehaztuko dituen faktore garrantzitsuenetako bat.**

**Segurtasun falta sumatzen dugu, gure eguneroko bizitzak eta etorkizuneko proiektzioak baldintzatzeko gaitasuna izan dezaketen balizko arriskuak antzematen ditugu. Lehenengo pertsona bizi izan dugu covid-19arekin, duela urte gutxi batzuk urruneko distopia irudituko litzaigukeena.**

(oinarri sozioekonomikoko eta/edo oinarri matxistako indarkeriatik eratorria), komunitarioa (arraza eta/edo erlijio arloko tentsioetatik eratorria), osasun eta zain-tza arlokoa (pandemiak, elikagai ez seguruak, arreta jasotzeko aukerarik eza eta oinarritzko osasun zainke-ta), larrialdi klimatikoaren ondoriozkoak (berotzeak, suteak, uholdeak, kutsadurak) eta zibersegurtasuna.

Eta bi dira giza segurtasuna lortzeko garatu beharreko dimentsio nagusiak: erakundeen esparrutik bideratutako babes eta komunitate gaitu batek eskaintzen duen ahalduntze soziala. Covid-19aren pandemiak eragindako larrialdi sanitarioaren esperientziatik ondorioztatzen da, hain zuzen ere, bi osagai horiek ezinbestekoak direla larrialdi-egoerei aurre egiteko gutxien duenari kalte handiagoa egin gabe.

Erakundeen segurtasunaren kudeaketa politikoari dagokionez, gardentasunaren, erantzukizunaren eta herritarrei kontu ematearen parametroak sartu behar dira. Eginkizunak eta zereginak modu koordinatuan eta ikuspegi kooperatiboarekin banatu behar dira Ertzaintzaren eta Foruzaingoaren (polizia espezializatua) eta Udaltzaingoaren (polizia komunitarioa edo hurbilekoa) artean, baita larrialdietan, erreskateetan, babes zibilean, suteetan eta salbamenduan jarduten duten gainerako agentzien artean ere, boluntarioek ematen duten zerbitzua barne hartuta. Azkenik, neurri zehatzetan aurrera egin behar da euskal polizien osae-ran, generoari, jatorriari eta ideologiari dagokienez egungo euskal gizartearen isla izan daitezen.

Ez da ulertzen poliziak delituari eman beharreko eran-tzuna, delituaren fase guztietan (salaketa, ikerketa, jazarpena, epaiketa eta zigorra) erantzun publikoa ematea ahalbidetzen duen justizia sistema eragin-kor bat ez badago. Tamalez, titulartasun eta eskumen desberdineko administrazio horien koordinazio dese-

**Hain zuzen ere, datozen urteetan ugariak izango dira gure ongizatea eta egonkortasuna mehatxatuko dituzten faktoreak. Horietako asko berriak, orain arteko gizarte-formetan ezagutu gabeak.**

gokiak eragotzi egiten du datu fidagarriak edukitzea, zigortu gabeko delitua zehaztea eta, horretan oinarrituta, zuzenketa-neurriak hartzea eta beharrezko baliabideak zehaztea delituaren jazarpenean eragin-kortasun handiagoa izateko. Izan ere, hobetzeko tarte handia dago. Sistema judizial propioa, ezinbestean polizia judizial eta fiskaltza eraginkorrekin batera, gure errealitateari tresna propio nahikoekin aurre egiteko oinarritzko aldarrikapena da gaur egun.

Behetik gorako ikuspegia du bigarren dimentsioak. Helburua da pertsonen eta komunitateen gaitasunak garatzea erabakiak har ditzaten eta beren kabuz jardun dezaten. Pertsonak ahalduntzea ez da soilik haien ahalmen guztia askatzea, bada, era berean, haien parte-hartzea aktibatzea ere konponbide komunitarioen bilaketan protagonista izan daitezen. Covid-19aren krisialdian zehar argi eta garbi ikusi da zein garrantzitsua den tokiko komunitateen autoantolaketaren segurtasuna bermatzeko garaian.

07

# Gure konpromisoa

Kontua ez da errezetak ematea, agenda nazional bat bilbatzea baizik. Aldaketa-garai honi aurre egiteko prestatu behar dugu, eta euskal proiektu nazionala berritzeko ekarpen garrantzitsua egin behar dugu une historiko honetan. Atxikipen askearen bidezko proiektu nazional erabat demokratikoa, giza-garapenean eta garapen jasangarrian oinarritua, komunitate kohesionatua eraikiko duena berdintasunaren, justizia sozialaren eta ingurune naturalaren zaintzaren printzipioak eta balioak ardatz hartuta.

Hain zuzen ere, horrexegatik eskatzen dugu askatasunez erabakitzeko eskubidea. Izan ere, eztabaida ez da zer den posible Espainiako konstituzioaren barruan, baizik eta zer subiranotasun maila, zer autogobernu maila behar dugun aro berri honi erantzun positiboa emateko. Estatus politiko berriak behar ditugu, bai EAEn zein NFKn, aurrean ditugun erronka konplexuei behar besteko bermekin aurre egiteko eta herri gisa aurrera egiten jarraitu ahal izateko. 2018an aurkeztutako “Autonomiatik subirautzara. Estatus berri baterako oinarriak” proposamenean jasotzen den bezala, estatus politiko berriek botere funts bat emango diete bi erkidegoei, euskal gizarteari zuzenean eragiten dioten gai guztiei buruz erabakitzeko gaitasunarekin, hurbiltasun-printzipioaren arabera; Euskal Herriko lurraldeen arteko artikulazio instituzional eta/edo funtzionalak eredu konfederal bati erantzutea ahalbidetuko da, ekintza bateratuko edozein espazio –instituzionala eta/edo eskumenezkoa– lurralde-eremu bakoitzeko herritarren borondate librearen ondorio izan dadin; eta berme sistemak zehaztuko dira Estatu Espainolarekin molde konfederalerako aldebikotasun eraginkorra ziurtatzeko.

Izan ere, subiranotasunari uko egitea, besteak beste, une historiko honetan behar diren politika publikoen garapenari uko egitea da. Hain zuzen ere, covid-19ak

eragindako krisiaren irakaspen handienetako bat da garaiko erronkei aurre egiteko dugun gaitasuna, gure erresilientzia komunitarioa, funtsezko bi faktoreren mende egongo dela hein handi batean: komunitate gisa jardutearen eta estatu egitura eraginkorrek izatearen mende; komunitate irekia, bizia, autokontzientea eta konprometitua, estatu sozial eta demokratiko batek babestua.

Oker dago dokumentu honetan estrategia elektoralista bat ikusten duena. EH Bilduk herri hau gobernatzeko asmo legitimoa du, anomalia demokratikoa litzateke kontrakoa. Baina gobernu alternatiba izate-tik harago, EH Bilduk bere gaitasun politikoa nazio mailako elkarrizketa sakon bat bultzatzera bideratuko du ondorengo garaietan. Datozen hilabeteetan eta urteetan gure herriko eragile nagusiekin bilduko gara hemen azaldutako diagnostikoa partekatzeko eta elkarrekin gure herriarentzat zerumuga berri bat proiektatzeko. Konprometituta gaude herri honek behar duen eraldaketarekin eta datozen belaunaldien etorkizunarekin, eta gure onena emango dugu haien alde.

Bide hori egiteko behar adinako borondate indibidualak eta kolektiboak daude Euskal Herrian; egituratu, antolatu eta abian jarri behar dira. Gaingintu egin behar dira dinamika zatitzaileak, azpiratu egin behar dira interes korporatiboak, ehundu egin behar dira orain arte gertaezinak izan diren konplizitateak, eta oroz gain, ihes egin behar da politikarekiko itxaropen guztiak alde batera uzteko iradokitzen dituzten eta ezkortasun lazgarria garamatzaten diskurtso funtsean erreazionarioetatik. Azken batean, gure herriko gehiengo soziologikoak eraginkor bihurtzeko gai diren gehiengo soziopolitiko berriak artikulatu behar dira.

**EH Bilduk bere gaitasun politikoa nazio mailako elkarrizketa sakon bat bultzatzera bideratuko du ondorengo garaietan. Datozen hilabeteetan eta urteetan gure herriko eragile nagusiekin bilduko gara hemen azaldutako diagnostikoa partekatzeko eta elkarrekin gure herriarentzat zerumuga berri bat proiektatzeko.**

EH Bildu jabetzen da helburu horretarako ezinbesteko tresna dela, baina hori ez da indar politiko batek bakarrik egin dezakeen zerbait, nahi den zabala eta askotarikoa izanda ere. Aitzitik, modu eta eremu askotan adierazi behar diren gehiengo soziopolitiko berrien bidez baino egin ezin daitekeen langintza da. Gehiengo soziopolitiko horiek herri-ikuspegi argiarekin jokatu behar dute, eta pragmatismo eraldatzailea izan behar dute gidari.

Erradikaltasun arduratsu gisa ulertutako pragmatismo eraldatzailea, arazoen jatorria aztertzen duena ondoren irtenbide posibleak planteatzeko. Erradikaltasun arduratsua itxaropenik gabeko etorkizunera kondentzen gaituen status quoaren defentsa inpotentearen orde. Pragmatismo eraldatzailea, ideien eztabaida saihesten ez duena, beharrezkoa denean konfrontatzen duena, baina aldi berean akordioak lortzeko, indarrak eta borondateak batzeko eta topaguneak ahalbidetzeko gai dena.

Gaur, inoiz ez bezala, batzen gaituena da garrantzitsua, eta asko da batzen gaituena. Gure herriak batzen gaitu, bere etorkizunarekiko kezka. Eta bai, aurre egin beharreko erronka nagusiei buruzko herri mailako akordioak behar ditugu, eta akordiook egingarriak dira. Hitzarmenak ez dira berez helburu, baizik eta gure herriaren eraikuntza sozialean eta nazionalean aurrera egiteko bitarteko; baina eztabaida politikoari mugarik jartzen ez zaionean, erdigunean herri sen sakona jartzen denean eta epe laburreko interes alderdikoiak alde batera uzten direnean, itun politikoak gizarte-prozesu zabalagoen palanka bihurtzen dira. Guztiok dugu une historiko honek eskatzen duen mailan egoteko erantzukizuna. Erantzukizun handienarekin jardutea beste aukerarik ez dugu.

**Konprometituta  
gaude herri  
honek behar duen  
eraldaketarekin  
eta datozen  
belaunaldien  
etorkizunarekin,  
eta gure onena  
emango dugu  
haien alde.**

Hobeto egin daiteke, hobeto egin behar da eta hobeto egingo dugu. Izan ere, gaur munduratzan diren belaunaldiek guri egokitu zaiguna baino jendarte, herri eta mundu hobeak ezagutzeko konpromisoa hartzen dugu.

Berretsi egiten dugu herri hobe batekin dugun konpromisoa.





**ehbildu**